

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

- Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Nahiz eta esperientzia gutxi izan, gure puntu indartsuei ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatuko gara. Marek-ek kontabilitate kurtso bat egin zuenean ezagututako lagun batek asko lagundu digu merkatuan sartzen, honek merkatuko enpresa handi bat eramaten baitu. Momentu erabakigarrietan erabaki azkarrak hartzen dakigu, eta horrek akats ugari egitea sahiesten dizkigu.

Baliabide fisiko modura, lanerako 1000 m²-ko tailer bat erabiliko dugu eta Elgoibarko Olaso auzoan kokatua dago. Finantza baliabide aldetik, enpresa sortzeko bakoitzak genituen aurrezkiak erabili ditugu, ez genituenez sekulako aurrezkiak, ez da oso enpresa handia izango, erantzunkizun mugatuko sozietate baten pentsatu dugu, 3.000euroekin eratzea posible baita. Giza baliabideak, guk, lau bazkideok eskeiniko ditugu, eta erosiko ditugun materialak beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu, gero guk eraldatzeko.

